



6

ETXE ATARIKO AUZOKIDEEN KOMUNITATEEN IDATZIAK

- A** Oharrak
- B** Atariko auzokideen bilera deia
- C** Atariko auzokideen bilera akta

 <p>1</p> <p>2</p>	<p>Ohar honen bidez adierazten dizuet, datorren martitzenean, hilak 20, Naturgas enpresako teknikariak gure atarian izango direla, gas instalazioa aztertzeko. Goizeko 10:00etan hasiko dira, lehenengo solairuan hasi eta goikora iritsi arte.</p> <p>Bergaran, 2002ko urtarrilaren 9an</p>
<p>Bihar, eguena, arropa batzeko kanpaina bat egingo du Karitas-ek eta horretarako arratsaldeko betan pasatuko dira ataritik. Atarian bertan, poltsan sartuta, utzi ditzakezu arropa horiek.</p> <p>Aretxabaletan, 2002ko otsailaren 28an</p>	 <p>Egun bi barru atariko kristalak garbituko dituzte Arrasate Garbiketako enpresakoek. Hortaz, jakizu goizean izango direla atarian.</p> <p>Eskoriatzan, 2002ko uztailearen 31n</p>
<p>Kalean obra batzuk egin behar dituztela eta jakizu datorren astean, hilaren 8an, goizeko 10:00etatik 13:00ak arte ez dugu la argirik izango gure etxeetan. Ohartxo hori pasatu digu Iberdrolak.</p> <p>Bergaran, 2002ko ekainaren 21ean</p>	<p>4</p> <p>3</p>

A

Oharrak

Auzokide hori:

Badakizu 10 urte beteko direla laster etxea egin zenetik eta oraintxe erreklamatu behar ditugula okerrak eta akatsak, apurtu direnak eta antzemandako akatsak. Hortaz, komeni da egun hori baino lehenago eskaerak niri pasatzea.


Oñatin, 2002ko apirilaren 10ean

Atariko arduraduna

5



6



Orain erabiltzen ari garen antena parabolikoak akats batzuk izan ditu, eta horiek konpondu eta gero aldaketa txiki batzuk izan ditugu telebista kateetan. Aurrerantzean, GoiTB eta ETB1 33. eta 56. kanaletan ikusiko ditugu.

Eskoriatzan, 2002ko irailaren 7an

Garbiketa egiten duen pertsonak adierazi digunez, datorren hilean, zapatu eta martitzenetan garbituko ditu atariko eskailerak.

Arrasaten, 2002ko martxoaren 5ean

7



1

BILERA DEIA

Idatzi honen bidez dei egiten dizuet gure atariko bilerara etor zaitezten.

Eguna: 2002/10/28

Ordua: 20:00

Tokia: ataria

Aztergaiak:

1. Aurreko bilerako akta onartzea.
2. Igogailu berria jartzea.
3. Aurreko urteko diru kontuen berri ematea.
4. Kuotak igotzea.
5. Eskaerak eta galderak.

Gaien garrantzia ikusita, guztiok egotea komeni da.

Arrasaten, 2002ko uztailaren 3an

1



BILERA AKTA

Nork deitua: idazkaria

Eguna: 2002/10/28 (astelehena)

Ordua: 20:30

Tokia: ataria

ETORRI DIRENAK.

Maribi Etxebeste.

Maite Arriola.

Juan Luis Cebrián.

Marian Gómez.

Luis M^a Ruiz de Egino.

Beñat Uribarren.

Aztergaiak:

1. Aurreko bilerako akta onartzea.
2. Igogailu berria jartzea.
3. Aurreko urteko diru kontuen berri ematea.
4. Kuotak igotzea.
5. Eskaerak eta galderak.

Esan-eginak eta erabakiak.

1. Akta onartzea.

Atariko arduradunak bilera hasi du, eta aurreko bilerako akta irakurri du.

Erabakia: batzordekideek aurreko bilerako akta onartu dute aho batez.



2. Igogailu berria jartzea.

Igogailu berria jartzeko jasotako aurrekontuen berri eman die atariko arduradunak batzordekideei.

Erabakia: aurrekontu guztiak komentatu eta eztabaidatu dira. Jaso enpresak aurkeztutakoa onartu da, prezio ona eskaintzeaz gainera, saldu ondoko zerbitzu ona du eta.

3. Aurreko urteko diru kontuen berri ematea.

Joan den urteko sarrera-irteeren berri eman du atariko arduradunak (ikusirik eranskina). Sarrerak 10.000 €-koak izan ziren. Irteerak, berriz, 8.523 €-koak. Hortaz, bada, kontuan izanda iaz urte hasieran 3.250 € zeudela atariko auzokideen komunitatearen kartilan, orain 4.727 € daude.

4. Kuotak ordaintzea.

Igogailu berria jartzeko ordaindu beharreko kuotak eta epeak aurkeztu ditu atariko arduradunak.

Erabakia: kuotak %30 igotzea proposatu du eta auzokide guztiek onartu egin dute, bik izan ezik: 1A eta 1B pisukoek. Esan dute ez dutela igogailurik behar eta horregatik ez dutela ordainduko. Hori dela-eta lehendakariak proposatu du auzokide bi horiek orain arteko kuota ordaintzen jarraitzea, baina igogailua erabiltzeko giltza jartzea. Bi proposamenak onartu dira. Horren ondorioz, kuotak %30 igotzea eta igogailuari giltza jartzea erabaki dute.

5. Eskaerak eta galderak.

Ez da egon ez eskaerarik ez galderarik.

Amaiera: bilera amaituta agiri hau egin dut, zer eztabaidatu eta zer erabaki dugun jasotzeko.

Arrasaten, 2002ko urtarrilaren 28an

Maite Arriola atariko arduraduna

